

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Onestea Iruraiz-Gaunako Udalerako aguazila (askotariko zerbitzuak) hautatzeko prozesuaren deialdia eta oinarri arauak

1. XEDEA.

Oinarri arau hauen xedea da aguazil edo aguazila (askotariko zerbitzuak) gisa langile bat hautatzeko prozesua arautzea, aldi baterako lan kontratu baten bidez kontratatzeko, plaza jabetzan bete arte.

Kontratututako pertsonak, besteak beste, eginkizun hauek beteko ditu:

1) Udal instalazioak mantentzea eta zaintzea:

a) Iruraiz-Gaunako Udalaren instalazioak mantentzea.

b) Udal eraikinak irekitzea eta ixtea.

c) Udal eraikinak egokitzea eta mantentzea.

d) Mantentze lanak.

e) Udal materialaren erantzukizuna.

f) Udal lurzatiak berrikustea eta kudeatzea, alegia, belar-sastrakak kentzea eta behar bezala mantentzea.

g) Eraikinak kontratatzea eta instalazioen funtzionamendua.

2) Garbiketa:

a) Udal eta kontzeju eraikinak eta horien sarbideak garbitzea.

b) Elurra kentzea udal eraikinetako sarbideetan.

c) Kaleak eskuz ekortzea eta paperontzietakoak biltzea.

3) Mantentze lanak:

a) Udalaren makinak, eraikinak eta instalazioak mantentzeko lanak.

b) Berokuntza eta ur beroa.

c) Berdeguneak, lorategiak eta loreak.

d) Konponketa txikiak bide publikoetan eta udal eraikinetan.

e) Lorategi, lorontziak eta zuhaitzi publikoak mantentzea.

f) Lorategiak moztea, aitzurtzea, jorratzea, ongarritzea eta inaustea.

g) Makina hauek erabiltzea: haize makina, sasiak kentzeko makina, motozerra, atoidun ibilgailua).

4) Beste batzuk:

a) Auzotarrei eta kontzejuei dokumentazioa eramatea.

b) Jakinarazpenen banaketa.

c) Dokumentuak udaletxeko iragarki taulan jartzea.

d) Udalak antolatutako jarduerak antolatzen laguntzea.

e) Lanen koordinazioa.

f) Udalerriko administrazio batzarrei laguntzea instalazioen mantentze lanetan.

g) Su-itzalgailuak aztertzea, zerbitzuaz arduratzen den enpresarekin batera.

h) Materiala udal eraikin batetik bestera eramatea.

5) Lanpostuari dagozkion eta alkateak beharrezko jotzen dituen eginkizun guztiak, udal zerbitzuek eta instalazioek behar bezala funtziona dezaten.

2. LANPOSTUA, HAUTAKETA TXANDA, BETETZEKO ERA.

Lanpostua: Aguazilak (askotariko zerbitzuak) 1.551,14 euro gordinoko soldata izango du kontratuak dirauen bitartean.

Hautaketa txanda: irekia.

Betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

3. IZANGAIEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Dagokion eskaera egitea.

b) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kideetako baten nazionalitatea izatea, edo Europar batasunak egindako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio esparruaren barruan egotea, langileen zirkulazio askea aplikatzen bada. Espainiarren nahiz Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, haien nazionalitatea gorabehera, baita ezkontide bataren zein bestearen ondorengoek ere, baldin eta ezkontideak legez bananduta ez badaude, eta ondorengo horiek hogeita bat urte baino gutxiago badituzte edo adin horretatik gorakoak izanik mendekoak badira. Aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen gain, Espainiako Estatuan legezko bizilekua duten atzerriko pertsonak ere aurkez daitezke. Hautatzen badituzte, kontratatzeko eskatzen diren administrazio baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

c) Hamasei urte beteta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, eta nahitaez erretiratzeko gehieneko adina ez gainditzea.

d) Autonomia erkidegoetako edozein administrazio publikoren, organo konstituzionalen edo estatutu organoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ez egotea ebazpen judizialaren bidez desgaituta enplegu edo kargu publikorako, funtzionario kidegora edo eskalara sartzeko, edo desgaitu duten langile lan kontratudunaren lanpostuan egindakoen antzeko eginkizunetarako.

Beste estatu batekoa izanez gero, ez egotea desgaituta edo estatu horretan aurretik adierazitako baldintza berdinetan enplegu publikorako sarbidea eragotziko dion egoera baliokide batean.

e) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

f) Gutxienez, eskola ziurtagiria edo horren baliokidea den titulu bat izatea, legezko arautegiaren arabera, edo aipatutako ziurtagiria edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

g) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, bateraezintasuneko legezko kasuren batean ez egotea. Kargu publiko bat edo bateraezina den jarduera pribatu bat duten hautagaiek, deialdi honen lanpostuan lanean hasi aurretik, dagokion aukera egin ahalko dute, aipatutako legea kontuan hartuz.

h) B zirkulazio baimena edukitzea.

i) 2. hizkuntza eskakizunaren edo baliokidearen dagokion hizkuntza eskakizuna izatea.

Baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira.

4. ESKAERAK AURKEZTEA.

Eskabideak Iruraiz-Gaunako (Araba) Udalaren bulego nagusietan egongo dira eskuragarri, eta bat etorriko dira l. eranskinean jasotako eredu normalizatuarekin.

Oposizio-lehiaketan parte hartzea eskatzeko eskabide normalizatuak Iruraiz-Gaunako Udaleko alkate-lehendakariari bidaliko zaizkio, eta baldintza hauek bete beharko dituzte onartuak izateko:

a) Hautagaiek deialdiaren hirugarren oinarrian adierazitako baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko dute. Betekizunak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako.

b) Eskabideetan agiri hauek erantsi beharko dira:

— NANen fotokopia konpultsatua, edo horren baliokidea atzeritarren kasuan, eta deialdian parte hartzeko eskatzen den titulua, edo haren fotokopia konpultsatua.

— Alegatutako merezimenduen egiaztagirien fotokopia konpultsatua.

Arauz betetako eskabideak Iruraiz-Gaunako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira.

Aurkezteko epea ekainaren 30ean, 14:00etan, amaituko da.

5. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

Bai epaimahai kalifikatzailea bai haren ordezkioak udaleko idazkaritza-kontuhartzaileak, udaleko langileek, kuadrillako langileek eta/edo mugakide diren udaletako langileek osatuko dituzte.

6. OPOSIZIO ALDIA.

Oposizio aldia idatzizko ariketa teoriko eta ariketa praktiko bana egongo dira. Hautagai guztiek nahitaez egin behar dituzte, eta baztertzailak dira.

Lehenengo ariketan, epaimahaiak galdera sorta batetik ateratako egoki jotako galdera batzuei erantzun beharko zaie. Galderavsorta hori eskabidea aurkeztu duten hautagaien eskura jarriko da, aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ariketa horretan 25 puntu banatuko dira, eta gainditzeko, gutxienez, 12,5 puntu lortu beharko dira.

Galderek aukerako erantzunak izango dituzte (test modukoa).

Galdera okerrak eta erantzun gabeak ez dira zigortuko.

Bigarren ariketan, epaimahaiak diseinatutako ariketa praktiko bat edo batzuk erantzun edo egin beharko dira, oinarri hauetan adierazitako lanpostuaren eginkizunen ingurukoak izango dira. Makinak erabiltzea edo Iruraiz-Gaunako udalerriko jurisdikzio ezagutzea ere izan daitezke ariketa praktiko.

Ariketa horretan 50 puntu banatuko dira, eta gainditzeko, gutxienez, 25 puntu lortu beharko dira.

7. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA.

Oposizio aldia gainditzen duten izangaiak lehiaketa aldira pasatuko dira. Lehiaketa aldia 25 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Ez dira baloratuko bi ariketetako bakoitza gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa lortu ez dutenen merezimenduak.

Alegatzen diren merezimenduak edukitzeko erreferentziako data eskaerak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

Azterketa teorikoa eta praktikoa egin ondoren, epaimahaiak eskabidearekin batera aurkeztutako merezimenduak baloratuko ditu, baremo honen arabera:

Lan esperientzia:

Lorategiak eta espazio publikoak mantentzearekin, udalerriko biztanleei jakinarazpen ofizialak banatzearekin, udal eraikinak mantendu eta garbitzearekin eta udalerriko kaleak ezagutzearekin zerikusia duten zerbitzuak: 0,5 puntu hilabete oso bakoitzeko, 25 puntu gehienez.

Egiaztatzeko modua:

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak administrazio horiek emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, eta zerbitzua ematearen iraupena eta betetako lanpostua zehaztuko dira. Ziurtagiri hori eskabideari erantsiko zaio.

Sektore pribatuan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko zerbitzuak jaso dituen enpresaren ziurtagiria edo lan kontratua aurkeztuko da, eta betetako lanpostuaren eginkizunak xehetasunez jaso beharko dira bi kasuetan. Gizarte Segurantzak egindako laneko bizitzaren agiri ere aurkeztu beharko da. Ziurtagiria eta lan bizitza eskaerarekin batera aurkeztuko dira.

8. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN PROPOSAMENA.

Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa oposizio faseko ariketetan lortutako puntuazioen batura izango da, eta horri, lehiaketa fasean lortutakoa gehituko zaio. Horrela, prozesua gainditu duten pertsonen izena eta puntuazioa argitaratuko ditu epaimahaiak.

Epaimahaiaren iritziz lanpostua betetzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituen hautagairik ez badago, plaza bete gabe gera daiteke.

Epaimahaiak ezingo du inola ere proposatu deialdian eskaintzen diren lanpostuak baino hautatu gehiago.

Epaimahaiak alkateari bidaliko dio akta, izendatzeko proposamena egin dezan.

Puntuazioan berdinketa badago (oposizio eta lehiaketa aldietako puntuak batutakoan), azterketa praktikoa lortutako puntuazioa lehenetsiko da; eta hala ere berdinketa badago, teorikoa lortutako puntuazioaren arabera erabakiko da.

Aktan, proba baztertzailerak gainditu duten hautagaien zerrenda ere jasoko da, puntuazio ordenaren arabera, deitutako plaza kopurua gainditzen bada ere.

Hautagaiek lan poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazi hurrenkeraren arabera, eta behin-behineko beharrak asetzeko erabiliko da.

9. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Hautatutako izangaiari aldi baterako lan kontratua egingo zaio, lanaldi osokoa, astelehenetik ostiralera bitartekoa, legez edo hitzarmenez ezarritako atsedenaldiekin. Kontratu horrek lanpostua jabetzan bete arte iraungo du.

10. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Deialdiaren, oinarrien eta oinarri horien eta epaimahaiaren jarduketan ondorioz sortzen diren administrazio egintzen aurka egin ahalko dute interesdunek, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean ezarritako epean eta moduan.

Azilu, 2025eko maiatzaren 21a

Alkate-lehendakaria
IRATXE DEL BARCO MURUA